



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Euskal Barrokensemblek, Enrike Solinisek bultzatutako taldeak, mugarik gabeko musika emanaldia eskainiko du Juan Sebastian Elkanoren omenez

- **Kontzertua bihar asteazkenean izango da, abenduaren 2an, 19:00etatik aurrera.**

Bilbon, 2020ko abenduaren 1ean. – Musikak mugak gainditzen ditu, aldatu egiten da, fusionatu egiten da, transmititu egiten da, bidaiatzera eramaten dugu... eta espiritu abenturazale horrekin etorriko da **Euskal Barrokensemble** taldea Arriaga Antzokira, bihar asteazkenean, abenduaren 2an. **Enrike Solinis** buru duen taldeak kontzertu ederra eskainiko du eta, bertan, Juan Sebastian Elkano euskaldun unibertsala kapitain duen bidaia musikala eskainiko die ikusleei.

Duela 500 urte Fernando Magallaes buru zuen espedizio batean espezieen bila abiatu zen gizon berbera, lur-esfera osoari bira eman ziona eta, gaur egun, munduko leku askotan ezezaguna dena, gugana dator, iraganerako begirada bat zabaltzera, orainaz goza dezagun eta oraina uler dezagun. Eredua ezarrita dago eta printzipioa simplea da: musika hizkuntza unibertsal nagusia da, antzinatik urruneko herriak elkartu dituen eta, gaur egun ere, herriak elkartzen jarraitzen duena.

Bere ibilbidean zehar, Enrike Solinisek Jordi Savallen muntaietan parte hartu eta bere proiektuetatik ikasi ahal izateko zortea izan du, berarekin denboran eta espazioan zehar bidaiatuz. Honenbestez, ez zaio zeregin ezezaguna iruditzen Elkanoren figura, bere mundu eta denboraren bitartez, erreferentetzat hartzen duen musika-programa hau aurkeztea.

Musika baino gehiago

Bihar Arriaga Antzokian hamaika musikarik osatuko dute Euskal Barrokensemble, guztiak ere lehen mailakoak. Horrek ezpairik gabe musika aldetik anitza izango den proposamena bermatuko du, zapore eta kolore ugari nahastuko dituena. Gainera, ikuskizunean errezitatzaile bat eta bi dantzari ariko dira, emaitza are eta gehiago edertzeko.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 12 eta 25 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Juan Sebastian Elkano

Euskal Barrokensemble

Lautea, giterna, moldaketak eta zuzendaritza artistikoa: **Enrike Solinís**

Sopranoa: **Bernadeta Astari**

Ahotsa: **Leire Berasaluze**

Ahotsa: **Maika Etxekopar**

Kontratenorea: **David Sagastume**

Baxua: **Javier Jimenez Cuevas**

Txirula, ttunttuna eta ahotsa: **Mixel Etxekopar**

Biolin barrokoa, fidula, rabela: **Miren Zeberio**

Moko txirulak: **Vicente Parrilla**

Kontrabaxua: **Pablo Martin Caminero**

Perkusioa: **Dani Garay**

Errezitatzaila: **Joxean Bengoetxea**

Dantzariak (Oinkari Txiki): **Onditz Esnaola eta Jurgi Errandonea**

Argi diseinu eta teknikaria: **Javi Ulla**

Argi teknikariak: **Nacho Basterrechea eta Nicolás Basterrechea**

INAEM-en babesari esker eskainitako kontzertua

Informazio gehiago:

Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus